

---

# Manex Erdozaintzi-Etxart. Pentsamenduaren eta literaturaren iturriak



AGURTZANE ORTIZ



*m*anex Erdozaintzi-Etxarten heriotzaren hogei-  
garren urteurrenarekin bat eginez, Nafarroa Be-  
herreko fraide frantziskotar, euskaltzale eta poeta  
dugu berriro ere aipagai, hain zuzen ere haren ekarpena  
eta obra gogoratu eta aztertu duen ikerketaren berri emanez.

Iragan maiatzean Erdozaintziri buruzko doktorego tesia aurkeztu nuen Paueko Unibertsitatearen baitan: *Manex Erdozaintzi-Etxart. Bizitzaren eta literaturaren konpromezua (Vie et oeuvre de Manex Erdozaintzi-Etxart)*. Txomin Peille-  
nen zuzendaritzapean eginiko ikerketa honen bidez, Iparaldeko kulturgintzan eta literaturan parte-hartze garrantzitsua izan duen pertsonaia aztertu nahi izan dugu. Idazleak bizi izan zuen garaira eta testuingurura hurbilduz, haren biografia aztertzea, obra osoa biltzea eta eza-gutzerara ematea izan dugu helburu. Izan ere, oso aipatua baina gutxi ezaguna izan da Manex, eta beharrezkoa zen, gure ustetan, gizona bere dimentsio osoan sakonki aztertzea: Manex fraidea, pedagogo eta psikologoa, euskarazko irakaslea, kristau eta kultur taldeetako partaidea, bai eta artikulu idazlea eta poeta ere.

---

► **Agurtzane Ortiz** Euskal Filologian doktorea da.

Erdozaintzik eta bere obrak 1970eko hamarkadaren inguruan garatu zen Iparraldeko kultur berpizkundeari eta literaturaren berikuntzaren lekukotasuna eskaintzen digu. Euskaltzale kontzientziaren eragile izan dela esan dezakegu, belaunaldi engaiatu baten aitzindarietako bat. Idazle askorentzat kultur eta literatur aholkulari, laguntzaile eta bultzatzaile ahaztezina izan ezik, literatur erreferente edo eredu ere bilakatu da. Espero dugu, honen bidez, Erdozaintziren izena euskal literaturaren historian dagokion lekuan kokatzea, eta, halaber, aurrerantzean burutu litezkeen ikerketetarako abiapuntua ezartzea.

## Erdozaintziren pentsamenduaren oinarriak

Erdozaintziren biografiaren azterketak haren egunkari pertsonalak, gutunak eta gogoetak izan ditu oinarri nagusi, eta lehen mailako iturriok gizon publikoa, idazlea, mintzalaria edo predikaria ez ezik, gizon pribatua ere utzi digute agerian. Horrela, bere bizitza ardatz zehatz batzuen arabera bideratu duen pertsonaia baten aurrean jarri gaitu. Ideia edo korronte horiek Erdozaintziren zutabe ideologikoak izan dira, bizitzari zentzua eman diotenak, eta halaber idatzi dituen olerki eta gisa guztietako idazkiak elikatu dituztenak: kristautasuna, euskaltasuna, pertsonalismo kristautik eratorritako gizakiaren, nazioaren, gizarte-konpromisoaren edota gizarte banaketaren inguruko ideiak, eta, azkenik, literaturaren eta kulturaren kontzeptua.

Erdozaintzi definituko lukeen hitz bat bilatuko bage nu, hori «konpromisoa» litzateke; bizi zuen garaiarekiko eta errealitate hurbil nahiz urrunarekiko konpromisoa. Iparraldeko fraide frantziskotar euskaltzalea, militantea eta olerkaria egiazko engaiamendu bati lotu zitzaion bere bizitzan; egiazko diogu, ez baitzen soilik teoria mailako engaiamendua, praktikan eta eguneroko zereginetan ere gauzatu zena baizik. Haren inguruko gizarteak, eta munduak oro har, bizi zuen krisi larriari ezin bizkarrik eman, eta jarrera aktiboa hartu zuen, bai erlijioan, politikan, kulturean, bai maila pertsonalean ere. Bizitzako beste espa-

rruetan bezala, literaturan ere euskal nortasunaren kontzientzia piztea eta zabaltzea izan zuen helburu.

Ikus dezagun, gaingiroki bada ere, zein diren Erdozaintziren oinarri ideologikoen giltzarriak.

## Kristautasun frantziskotarra

Gaztaroa eta frantziskotar bokazioa Eliza giro zaharkitu batean bizi izan zuen, ikus-pentsamolde ezkor eta dominante baten pean. Apaizturik eta Euskal Herrira itzulirik, ordea, berehala espiritu kritikoa iratzarri zitzaion; orduan hasi zen bere herria bere osotasunean eta desberdintasunean ezagutzen. Barruan zeraman euskal herritartasuna askatu eta indartu zitzaion. Gizarte honetan zapalduak eta zapaltzaileak bazirela ohartu eta zalantzarik gabe herri zapalduaren alderdia aukeratu zuen, langileriarena. Fraide bizitza kontzientzia hartze horrekin hasi zen pentsatzen eta berreraikitzen.

Erlijioak nahiz Elizak gizarteari eta munduari erabat loturik egon behar dutela ulertzen zuen; ezin diete jazotzen diren gertaerei bizkarra eman. Erlijio bizitza ezin dai-teke ihesbide bat izan, «gizarterako sarbidea» baizik. Erlijioso bizitza konpromisoaren bidetik heldu zuen, beraz, Euskal Heriarekiko, langileriarekiko, jende zanpatu eta pobreekiko konpromisoan, alegia. Ordura arteko molde zaharrak hautsi eta bide berri bat eraiki nahi zuen Euskal Herrian. Euskal Eliza berri bat aldarrikatzen zuen, herriari irekia, herriaren barnean errotua, kultura, politika nahiz ekonomia aldeko euskal arazoei aurre egiten saiatuko zena. Helburu horiek izan ziren, hain zuzen ere, hainbat proiektu eta talderen abiapuntua: «Fededunak» taldea (1968), «Anaitasuna» anaiarte (1972), «Argi bil» taldea (1974) eta «Herriarekin» apaiz taldea (1977).

## Euskaltasuna eta abertzaletasuna

Euskal Herriak bizi zuen giroaren kritika zorrotza egi-ten zuen Erdozaintzik. Euskal kultura pobretze, ahazte eta itzaltze bidean zekusan, kanpoko kulturak (frantsesa eta

espainola) indartzen ari ziren hein berean. Baina horren erantzukizuna euskaldunen baitan baino ez zegoela ulertzen zuen, gazte euskaldunek nahiz buruzagiek ezer gutxi egiten baitzuten arazo horri gogorki aurre egiteko; ideia horiek zenbait desadostasun eta eztabaida sortu zituzten. Honela irakurtzen dugu «Eskual kultura baten behar gorria» artikulua ezagunean (*Herria*, 1956):

Eskualdun izateko, ez da aski egitea bilkhura bat heben, bazkari bat hor, frantsesez eginikako mintzaldi zonbeit artetan. Ez da aski dantza, pilota, eta ohidura zonbeiten begiratzea. Eskualdun izateko behar da eskuara mintzatu, gure baithan dakharkagun dohainak haziarazi, haundiarazi, zohiarazi; gure izamen guziak behar du eskualdun izan.

Euskal Herri oso eta bateratu batekin amesten zuen, bai eta Europa berri batekin ere, Europa deszentralizatu eta federal bat, non Euskal Herria bezalako nazio txikiak ere edukiko luketen beren tokia. Horretarako, herriaren eraldaketa beharrezkoa ikusten zuen, bere dimentsio guztietan: politikan, ekonomian, kulturen, gizartean eta erlijioan ere bai. Hori, jakina, denek elkarrekin eta bat eginez baino ezin zen lortu, hau da, familia arteko, herriaren arteko eta nazioen arteko lokarri estuak finkaturik. Herriaren askapenerako bide hartan hartu beharreko fronte guztiak zilegi zitzaizkion, eta ardua handiz jarraitzen zituen hego nahiz iparraldeko gertakariak, gatazka politikoak, atxiloketak, Iparraldera ihesean joan beharrean aurkitzen zirenen eta errefuxiatuen egoera...

Manexek berak, euskaldun gisa eta fraide frantziskotar gisa, bere herriaren alde esparru horietan guztietan tinko lan egiteko engaiaturik ikusten zuen bere burua: herriaren borroka politikoan, langilegoaren lan eta bizi baldintzen hobekuntzan, euskararen eta kulturaren indartzean, eta, azkenik, euskal Eliza bizi eta pobre baten zabalkunde.

## Mounier-en pertsonalismoa

Erdozaintziren erlijio sinesmenean pertsonalismo kristauaren oinarriak ere antzeman daitezke. Emmanuel Mou-

ni erren lanak ezagutzen zituen, *Esprit* aldizkaria irakurri ohi zuen, eta anitzetan ikusten ditugu pentsalari frantsesari eta haren idatziei buruzko aipamenak eta gogoetak.

1932. urtean sortu zen *Esprit* aldizkariak, Mounier eta ideologia ezberdinetako hainbat pentsalari eta filosofoen eskutik, gizarteak garai hartan bizi zuen ekonomi eta espiritu krisiari, egituren eta gizakiaren krisiari erantzun bat bilatzen zion. Aldarrikatzen zuten pertsonalismoak pertsonaren eta mundu berrian desagertzeaz ziren printzipioen eta balioen babesa eskatzen zuen. Bada, Manex Erdozaintziren gizakiari eta munduari buruzko ikuspegiak Mounierren obra eta pertsonalistek defendatzen zituzten ideiak dakarzkigute gogora. Ideia haiekin bat egiten zuen, bereganatu egin zituen Euskal Herriko egoerara ere ekarriz, eta idazteko eta gogoetatzeko abiapuntu izan zituen. *Esprit*-en inguruan garatu zen pentsamendu horren arrastoa ikus daiteke Manexen artikuluetan, bai eta poesian ere. Ikus dezagun jarraian zein neurritan bat egiten zuen filosofia horren ideia nagusiekin (ikus Mounier 1949).

### *Komunikazioaren beharra eta indibidualismoaren aurkako jarrera*

Erdozaintzik pertsonen arteko harremanaren eta el-karrizketaren beharra azpimarratzen zuen, besteekiko jarrera ireki bat. Izan ere, besteak entzunez, ulertuz, maitatuz eta elkarlanean arituz gizateria aske eta ireki bat lor daiteke, gure herri edo eskualde mailan ez ezik, mundu mailan ere bai.

De telles exigences nécessitent qu'il y ait collaboration étroite de la part de tous ceux qui sont responsables d'assurer et de promouvoir la véritable culture. Dans un monde si désuni et qui réclame de plus en plus une solidarité ouverte entre les hommes, il serait absurde de continuer à cultiver un certain individualisme bourgeois, à perdre son temps à se disputer à n'en plus finir sur des questions secondaires, parfois sur des futilités, à se retrancher dans des susceptibilités mesquines ou des partis-pris injustifiables. Il est urgent de sortir de «soi-même» pour s'ouvrir à «l'autre», à tel et tel homme, pour entrer en dialogue et se

comprendre pour travailler dans une étroite solidarité à bâtir ce monde nouveau, un monde plus uni où l'on fraternise, où l'on s'aime cette fois-ci pour de bon («Pour une action efficace: Prendre conscience et s'unir», *Elgar*, 1959).

Izatea maitatzea dela zioen Mounierrek. Erdozaintzi-  
ren idatzietan behin eta berriro errepikatzen den hitza  
hori da, hain zuzen: maitasuna, amodioa. Erdozaintzi de-  
na amodio zela diote ezagutu zutenek; amodioa Jainkoari,  
herriari, munduari, bere lurrari eta mendiei, euskarari...  
Amodioz egiten zuen lan, amodioz mintzatu eta amodio  
hori bera transmititzen zuen poesiaren bitartez.

Pertsonalismo kristauak egiten duen moduan, indibi-  
dualismoaren aurka, izaera komunitarioa aldarrikatzen  
zuen, oso jarrera baztertua azken mendeetako kristau fe-  
dean eta bizitzan. Komunikazioaren, irekitzearen eta par-  
tekatzearen ideia horiek zeuden «Anaitasuna» proiektua-  
ren baitan:

(...) concrétiser une vie évangélique selon un modèle de  
partage des conditions de vie des travailleurs paysans et  
ouvriers de chez nous, vivant de notre travail, habitant  
une maison modeste qu'on louerait et qui soit ouverte à  
tout le monde; exister avec les gens dans des relations de  
réciprocité qui se nouent à l'intérieur d'un tissu socio-po-  
litique; exprimer une forme de vie fraternelle à partir et  
à l'intérieur des dynamismes de notre peuple, une vie  
fraternelle ayant la capacité de les ressentir, de les analy-  
ser, de les soutenir.

### *Gizaki guztien berdintasuna eta gizadiaren batasuna*

Ez dago pertsonalista kristaumentzat, ez eta Erdozaint-  
zirentzat ere, inolako bereizkuntzarik egiterik arraza, gi-  
zarte maila, erlijio edo jatorri ezberdinen arteko gizakien  
artean. Laikoekin elkarlanean aritzeko prest ikusten dugu  
beti, mundu osoko arraza ezberdinetako gizartearen egoeraz  
eta eskubideez kezkatuik... Horren adibide dugu, esate  
baterako, Erdozaintziaren liburutegian biltzen diren hiru-  
garren munduari buruzko liburuak, lanak eta artikuluak.

Car notre attitude doit fondamentalement être inspirée  
de la doctrine évangélique —idatzi zuen Aljeriako arazoa

zela eta—, qui veut que tous les hommes s'aiment comme des frères; il n'y a pas de race supérieure à une autre; essentiellement nous sommes —tous hommes— Fils dans le Christ d'un même Père, 'Notre père qui êtes aux cieux' (2. egunkaria, 1957-01-16).

### *Engaiamendua edo konpromisoa, eta 'akzioaren' garrantzia*

Bizitza egokitu zaien aro edo zibilizazio berriak, ale-gia, teknikaren, makinaren eta abiaduraren aroak, krisi batean murgildu du gizakia, gizarte, espiritu, nahiz politika mailan. Horren aurrean uzkurdu edo beldurtu baino, *akzioa* aldarrikatzen du Erdozaintzik, «une action qui soit pleinement humaine dans le jugement, la décision, la détermination et l'action» («Pour une action efficace: Prendre conscience et s'unir», *Elgar*, 1959). «L'action suppose la liberté», dio Mounierrek.

Horretarako hiru gauza dira beharrezko: bizi garen munduan kokatu, begi argi eta askeez ulertu, eta nork bere kultura landu eta ikasi (*se cultiver*). Soilik horrela senti baitaiteke giza komunitate batean engaiatua eta Jainkoari begira. Engaiamenduak eta ikaspenak nor bere existentziaz jabetzen lagunduko du, besteak ezagutuz, besteen pentsamoldeak onartuz eta besteekin elkarlanean (Erdozaintzi, op. cit.).

### *Kapitalismoaren eta burgesiaren egituren kritika*

Erdozaintzik goraki salatzen zituen gizarte mailaketa, jende pobreen alienazioa, jabetza pribatua... Jadanik esan dugu pobreen alderdia aukeratu zuela gizartean ziren maila ezberdinez ohartu zenean, jende langileen eta baztertuen alderdia.

Konturatu ere nintzen Ebanjelioa Pobreen giza lurrean jaio zela eta pobreen giza lurraren mintzairan hiltzeratu zitzaigulako. Nere fraide bizitza, kontzientzia hartze hauekin hasi nuen berpentsatzen eta berriro eraikitzen («Erljioso bizitza Euskal Herrian», *Jaunaren Deia*, 1978).

Horren aldatzeko jende xumearen borroka beharrezkotzat jotzen zuen, bere askatasuna eta duintasuna berreskuratu behar bazuen: «Jende xumea aldiz borroka batean sortu

da, nahi ala ez, eta zerbaitetarar heltzeko borrokari behar du lotu» (op. cit.).

Baina boteretsuen eta aberatsen aurkako borroka dei hura ez zen soilik Euskal Herriko eremu txikira mugatzen, aitzitik gure mugetatik kanpo ere zabaltzen zen, nazioarte zabalera.

### *Nazionalismoa eta internazionalismoa*

Nazio handien eta txikien arteko borrokan Erdozaintzi beti izan da txikien, zanpatuen, zatikatuen, eta miseriatik jalgitzeko oldartzen diren herrien ondoan. Haren idatzietan sarritan aipatzen ditu Vietnam, Kurdistan, Biafra, Txekoslovakia, India, Afrika, Hego Amerika nahiz Europako nazio txikiak. Eta Euskal Herriak ere, nazio berri eta gazteen bide beretik, autonomiaren aldeko bilakaera horren alde lan egin behar duelakoan dago.

L'évolution ou plutôt l'entrée dans la scène du monde des jeunes nationalités est le grand événement de notre époque. Et il me semble que nous autres, Basques, nous y sommes beaucoup plus sensibles que les vieilles et grandes nations d'Europe. En effet notre tradition démocratique nous permet de mieux comprendre cette évolution vers l'égalité et la justice; il est donc de notre devoir de travailler à ce que cette évolution qui, normalement, doit aboutir à l'autonomie, se fasse sans rejet des 'nations modernes' de la part des «pays sous-développés» («Attitude basque et jeunes nations en marche», *Elgar*, 1957).

Estatuaren kontzeptuaren gainetik Nazioarena izango du beti, Nazioa baita, Erdozaintzirentzat, gizabanakoaren burujabetasuna, askatasuna, nortasuna eta kultura babes dezakeen bakarra. Puntu horri loturik kolonialismoaren auzia datorkigu.

### *Antikolonialismoa*

Erdozaintziren liburutegian antikolonialismoaren ideien zabaltzaile izan ziren autore nagusien obrak aurki daitezke, esate baterako, Frantz Fanon, Robert de Montvalon edota Robert Lafont-en lanak. Halaber, Akitaniako frantziskotarrek argitaratzen zuten *Missions Franciscaines*

*d'Aquitaine* izeneko bihilabetekariaren irakurle zen. Frantziskotarrek munduan zehar zituzten misioen inguruko berriez informatzen zuen aldizkaria zen bere hastapenetan, baina 1959an *Frères du Monde* izena hartuz, gizarte eta nazioarteko gaiak jorratu zituen batik bat eta deskolonizazioaren eta herri ttipien inguruko artikulua eta go-goetak biltzen zituen agerkari ospetsua izatera iritsi zen. Bazegoen, beraz, frantziskotarren artean Hirugarren Munduarekiko ardura eta kezka. Aurretik aipatu dugun pertsonalisten *Esprit* aldizkariak ere garrantzi handia izan zuen antikolonialismoaren aldeko teorien zabalkundean; idazle ezagun ugariaren iritzi artikuluez gain, hainbat ale berezi kaleratu zituzten herri kolonizatuen, juduen, xenofobiarren eta atzerritarren arazoengatik.

Nazio kolonizatuetakoa gatazkek herri gutxituen askapenerako mugimendu intelektual handia piztu zuten eta hura Erdozaintzirengana iritsi zen. Nazio txiki, pobre eta alienatuen aldeko beti, deskolonizazioaren ideiak bere egin zituen, eta herri ororen askapenaren eta identitatearen alde lan egiteko konpromisoa aldarrikatu zuen etengabe.

Nous nous devons donc de travailler et de collaborer à la transformation politique, économique, sociale, culturelle et religieuse des pays coloniaux, dans la fidélité à leur originalité propre. Hier le Viet-Nam, aujourd'hui l'Afrique du Nord, demain l'Afrique Noire; déjà le Togo affirmait sa «personnalité». Nous ne devons aucunement demeurer aveuglés par quelque intérêt matériel, et les problèmes humains ne doivent pas être traités du seul point de vue économique (Op. cit.).

Nolabait herri kolonizatuarekin identifikaturik sentitzen zen. Izan ere, euskal gizarteak urte haietan bizi zuen gatazkak maila batean herrialde menperatu haiekin antzizik bazuelakoan zegoen, eta, beraz, teoria haiek Euskal Herriaren egoerara ekarri zituen.

### *Indarraren eta borrokaren balioa*

Manex Erdozaintzik utzi dizkigun idazlanek eta leku-kotasunek borroka bere bizitzaren ardatz nagusietako bat izan dela erakusten digute, ez borroka bortitza, ordea, bo-

rroka sotila eta espirituala baizik. Poesia ere borroka zen bere arrentzat, «borroka baten elea», *Hinki-hanka*-ren sarrean azaltzen zuen bezala. Baina zeren aurka borrokatzen zuen? Bada, Eliza tradizional eta zaharkituaren aurka, euskara eta euskal kulturaren itzaltzearen aurka, estatu zapaltzaileen aurka, kapitalismoaren eta burgesiaren aurka, mundu berriaren norberekieriaren aurka...

Hautsi egiten zuen, nolabait, elizgizon plegatu, konformista eta tradizioaren jarraitzaileen inuitiarekin. Paradoxikoa badirudi ere, Manex iraultzaile zen. Transmittitzen zuen espiritualtasuna, tolerantzia eta maitasun sentimenduekin batera, ekintza gizona zen, herritarren eta langileen borroka ulertu ez ezik bere borroka ere bihurtu zuena.

Pertsonalismoan aurkitu zuen bere galderei erantzuna, bere ideiekin bat egiten zuten teoriak eta planteamen-  
duak, eta ezin da ukatu filosofia horrek eragin handia izan zuela haren ikus-pentsamoldearen garapenean, eta ondorioz, idazlanetan.

Pertsonalisten eta Erdozaintziren kristautasuna ulertzeko modu horrek orain arte aipatu ez dugun kontzeptu bat dakarkigu gogora: *askapenaren teologia*, ebanjelioaren printzipioak hirugarren munduko herrien askapenera (askapen politiko, sozial, kultural eta ekonomikora) ekartzen dituen korrontea.

Egon da teologia hori aipatu duenik Erdozaintziren ideologiaz mintzatzerakoan eta ez da, egia esateko, frantziskotarrengandik eta bereziki Manexengandik urrun geratzen den pentsamoldea. Manex Erdozaintzi ez zen hirugarren munduko lurralde azpigaratu batean bizi, ez eta oinarrizko eskubideen beharretan bizi zen komunitate batean. Baina antkolonialismoaren atalean esan dugun bezala, neurri batean Euskal Herriko egoera herri kolonizatu eta zatikatuenarekin parekatzen zuen eta askapenaren teologiaren printzipioak bat datoz Manexek zuen gizakiaren, gizartearen eta askapenaren printzipioekin: pobre eta zapatuen aldeko aukera egiten du, estatu kapitalista eta boteretsuak gaitzesten ditu, pobreak eta alienatuak sistemaren aurka oldartzera eta borrokatzera deitzen ditu...

## Kultur eta literatur zaletasuna

Hasieran aipatzen genituen Erdozaintziren bizitzaren ardatz nagusietatik laugarrena eta azkena dugu hau. Orain arte Manex erlijio gizona, euskaltzale-abertzalea eta gizon engaiatua aipatu baldin baditugu, horiei tinko loturik eta ezin bereizirik dago Manex idazlea, poeta eta literaturzale porrokatua. Izan ere poesia, literatura eta oro har kultura (euskal kultura batik bat) barne-barnean eraman zituen bizitza osoan, oso gaztetatik. Poesia zuen bere barne sentipenen, minen eta pozen adierazpen modua, baina ez bereak bakarrik, bere herriarenak ere bai; poesia «herriaren borrokaren elea da», «herriaren dramaz eta giza errealitateaz mintzo da», errepikatzen digu (*Hinki-hanka*, 7-12 or.).

«Euskal kulturak oren latzak bizi ditu» zioen 1956ko artikulu batean («Euskal kultura baten behar gorria», *Herria*, 1956), 22 urte baino ez zituela; kultura krisi larrian zen, ez soilik kanpoko kultur boteretsuak indarrez nagusitzen ari zirelako, baizik eta euskaldunek beraiek ere «deus guti egiten zutelako» bereari eusteko. Salaketa gogorak egin zituen beren hizkuntza eta kultura berpiztu, indartu eta hedatzeko benetako indarra egiten ez zutenen aurka. Azken batean euskal *elite* baten falta zegoela pentsatzen zuen; euskara eta Euskal Herriaren jatorrizko ikuspentsamoldea zaintzeaz eta irakasteaz arduratuko liratekeen intelektual eta jende ikasiez osatutako elite berri baten beharra aldarrikatzen zuen.

J'ai l'impression que dans notre petit banque [barque?], il manque une élite d'hommes remplis d'idéal et capables de grandes réalisations. On ne s'est pas assez préoccupé de former une élite basque dans nos écoles secondaires. C'est, à mon avis, une grande faille. Et les quelques éléments que l'on rencontra à droite ou à gauche se sont développés grâce à un travail (effort) personnel. Mais ils se sentent si peu compris, si peu aidés, si peu «admis» même... dans (au sein de) notre société basque, qu'ils n'osent s'affirmer franchement. Et alors ils continuent à se cultiver personnellement, sans prendre conscience de leurs responsabilités vis-à-vis de la société basque dont ils font partie. Il faudrait pouvoir analyser (de près) ce phénomène.

me à fin de pouvoir y rémédier efficacement (...) (Madeleine Jauregiberriri gutuna, 1957-05-05. Ikus ere «Un problème actuel: l'enseignement de la langue basque», *Elgar*, 1959).

Manexek berak bere buruaren formakuntza bide horretan eman zuen bizitza osoa: bere burua kulturaz janzten, irakurtzen eta idazten, ikasten eta irakasten, euskal obrak eta agerkariak biltzen eta hedatzen... Euskal kultura ezin zen desagertu, horrek euskaldunen desagerpena erakirik baitzuen, «kulturaren barnean beita ere lortzen gizonaren izaitea» («Euskal billerak Hazparne'n», *Jakin*, 1957). Seguruenik berak ere sufritu zuen artikulua hartan aipatzen duen gizartearen ez-ulertzea eta laguntza falta.

Kulturaren kontzeptu herrikoia zuen: kultura, poesia bezala, jendearen baitan dago, jende xehearen baitan, laborariak, langileak, beren eskuez materia lantzen dutenak... denek egiten dute kultura. Irakur ditzagun hobeto haren hitzak:

Luzaz ainitzek uste ukan die kultura jende ikasientzat edo jende ikasietan zela bakarrik! Beharrik denbora hautan, laborari ala langileak ohartu dituk kultura denetan eta denentzat zela, bereziki populu xumeena haundiagoena bezain aberatsa zitakeela (Tolosatik Arnaud anaiari gutuna, 1969-11-20).

Eta berdin herri-antzerkigintzaren garrantziaz ari deanean:

Noradino heltzen den kultura: nork erran lezake? Askok uste dute kultura dela jende ikasien ontasun bat. Kultura da herri bat xutik, herri bat lanari lotua, herri bat beti sortzeko minetan, herri bat sekulan ez etsitua. Lurra beti iraulitzen den bezala, herri bat hasten delarik bere jendeen elgarretaratzen, eguneko errautsetik inarosten, eta iruzki alde so egiten: orduan herria hasten da sortzen. Herri osoa da teatrolari, egun guziez, bainan beste gisan, ez alegiaka, bainan intzirika eta nigarrez, irriz eta karkailaz, kantuz eta zinkaz. Izerdiak bustitzen duen bizkarra, haize hegoak perekatzen duen kopeta: gizona xutik, borroka eta kantuz, ixilik ala erasian: Herria ba doa orduan kultura bidean (7. egunkaria, 1970-02-15).

Idea horiek ere ez daude Mounierren pertsonalismoaren filosofiatik urrun. Harentzat ere jakintzaren esparru bat izan baino, gizakiaren baitan dago kultura; herria da beti kulturaren iturria, eta, ondorioz, gizakiarekin zerikusirik duen orori gertatzen zaion bezala, piztu egiten da, ez da eraikitzen ez inposatzen (Mounier 1949, 124 or.).

Pentsa daitekeen bezala, euskal kulturari eta intelektualei buruz esandako guztiak ez zuen harrera berdina izan irakurle guztien artean. Baziren hura bezala pentsatzen zutenak, alegia, euskal kultura egoera larrian zegoela eta horren indartzearen aldeko ekimen zuzenak burutu behar zirelakoan zeudenak. Baina baziren, bestetik ere, lanean gogor jardun ziren eta ziharduten euskaltzale zaharrak, horrelako adierazpenekin beren lana gutxietsia ikusten zutenak.

*Herria* kazetak 1956an Manex Erdozaintziren «Euskal kultura baten behar gorria» artikulua argitaratu zuenean, luze gabe agerkariaren zuzendaria zen Piarres Lafitteren erantzuna agertu zen («Ostogia jaunari», *Herria*, 1956). Lafittek Manexen idazkiak gazte «suhar eta kartsu heta-rik» zela erakusten zuela zioen, eta banan-banan erantzun zien «Ostogia» jaunaren ohar guzietan, esanez, ez zezala pentsa horretan zihardutenek ez zutela kulturaren axolarik, oso zaila zela hain irakurle gutxi eta eskolatu gabeko herri batean liburuak egitea eta saltzea, edota euskara hutsezko agerkariak kaleratzea, erdara ere, beraz, ezin zutela osoki baztertu.

Othoi —zioen—, ez zitela hainbertzetaraino hasarra bertzen kontra; eta, dakizunaz geroz zer den egiteko, lot zaizkio zuhaur lanari: gure astekari huntan berean badukezu toki, eta segur naiz «Gure Herria» ez zaitzula hetsiko, zombait kitzika gora-behera. Jakizu, eskualzale zaharrak ez direla, zombaitek uste duten bezain gaitzikor (Lafitte, *ibidem*).

Erdozaintzi gaztea lanari lotu zitzaion, Lafittek aholkatu bezala, eta euskararekin eta euskal kulturarekin zerikusia zuen orenen inguruan hausnartzeari eta aztertzeari ekingo zion aurrerantzean, beharbada bera ere noizbait 'elite' hartako kide izatera irits zitekeela amestuz.

## Erdozaintzi idazle

Erdozaintzi fraide, euskaldun konprometitu, irakasle edota kultur eragilearekin batera, Erdozaintzi idazlea eta poeta ere izan da. Oso gazte zela euskal kulturaren alde lan egin beharra sortu zitzaionlarik, literaturari zerbait berri ekar diezaiokeela sentitu zuelarik, bere burua sail horretan formatzetik hasi behar izan zuen. Bere kasa, literaturaz janzten eta euskara lantzen hasi zen, euskal klasikoak irakurritz, liburutegi zabal bat osatuz, hainbat idazlerekin harremanetan jarritz, eta garaiko euskal agerkari nagusiak bere idatzien hedatzailetzat hartuz: *Elgar, Jakin, Herria, Olerti, Gure-Herria, Eusko Gogoa, Gazte, Herriz-Herri, Anaita-suna, Jaunaren Deia, Fedegintza* eta *Maiatz*.

Haren literatur obra laburra da, «oso xumea eta laburra —aitortzen zion Villasanteri 1983an— hainbeste bainaz mugatua neure jakitate, ahal eta posibilitateetan!». Izan ere, fraide, irakasle eta hainbat esparrutako zeregin ugariak ez baitzioten utzi nahi zukeen denbora eta dedikazioa idazteko. Ez zuen sekula, gainera, bere burua idazle osotzat hartu, eta literaturari apaltasunez, eragozpenez eta zailtasunez ekin zion, modu autodidakta batez bere burua formatuz, 1950-1960ko hamarkadetan plazaratzen hasi ziren hainbat idazleren modura.

Agerkari ezberdinetan agertu ziren artikuluez eta olerkiez gain, hiru liburu baino ez zituen argitaraturik ikusi; bi olerki bilduma: *Hinki-hanka* (1978) eta *Herri honen herraietan* (1982); eta eleberri bat: *Gauaren atzekaldean* (1982). Manexen heriotzaren hamar urteren ondoren *Bizitza pilpirak, Nafarroari poema irekia, Herri honen erraietan* (1994) bilduma kaleratu zen.<sup>1</sup> Baina badira beste hainbat testu autoreak bizitza osoan zehar idatzi, gorde eta arrazoi ezberdinengatik argitaratzera iritsi ez direnak. Erdozaintziaren bibliografia hainbat olerki eta testu argitaragaberekin osatzera eraman gaitu gure ikerketak: guztira 83 olerki, antzerki bat, ipuin bat, eta hamaika prosazko testu bildu ditugu, gazte garaitik hil arte idatziak.

Desberdintasunak desberdintasun eta bilakaerak gorabehera, idatzi guztiok poetaren sentipen, oroitzapen eta

kexuen emaitza dira. Erdozaintziren obrak izaera bikoitza agertzen du. Alde batetik, sentimenduen poesia idazten zuen, maitasun, malenkonia eta barne minena. Idazle erromantikoen modura, haurtzaroko oroitzapen eztiak berreskuratu zituen, naturaren edertasunari abesten zion, maitasunari, jainkoari... Eta halaber, bizitzako gorabehe-  
rek eta minek idaztera bultzatu zuten, olerkigai bihurtuz sorterritik urrun joan behar izanaren samina, atzerriko bakardadea, maite zituenen heriotza, edota garaian garaiko gogoeta existentzialek eraginiko krisi une, ezintasun eta goibeldura sentimenduak.

Baina gazte garaiko lehen olerkietan atzean utzitako sortemari, mendiei eta Euskal Herri mitiko bati abesten bazion, 60ko hamarkadan gizarteak bizi zuen errealitatearen ispilu eta salatzaile izan nahi zuen poesiagintzari ekingo zion. Urte haietan indartzen hasi zen giro abertzale eta kulturazalean zeharo inplikaturik, eguneroko lan eta zereginekin ez ezik, literaturarekin ere bultzada bat eman nahi izan zion berpizte sentimendu horri. Poetak euskara eta Euskal Herria minez bizi ditu; herriaren arazoket eta gatazkek ezin-gona eta haserrea sortzen dute harengan. Literatura, orduan, helburu zehatz batekin sortzen da: errealitatea aldatzea, eta herritarrei «euskal kontzientzia hartzen laguntzea eta bere kondizio alienatua ahal bezain ximenki agertzea».<sup>2</sup>

Erdozaintziren obrak poetak bizi duen garaia eta haren garaikideek bizi duten errealitatearen berri eman nahi digu. Espazio eta garai zehatz batetik abiatuz, errealitate horren lekukotasuna eman eta salaketa egitea du helburu. Horretarako literatura, eta poesia bereziki (hori baita Manexek beti gogoan daukan generoa), tresnatzat edo armatzat hartuko ditu. Gabriel Arestik «poesia mailu bat da» zioen bezala, eta hark baino lehenago Gabriel Celayak «la poesía es un arma cargada de futuro» zioen bezala, Erdozaintziren poesia «borroka baten elea» da, «bere buruaren jabe izan nahi duen herri langile baten elea» (HH, 16 or.), «xixta zorrotzak» dituen, zorrotza «harri zorrotza bezalakoa» (NPI, 54 or.).

Gure herri langileak emeki emeki sortu ere du bere burruka elea. Poesia burruka bat da, bere buruaren jabe

izan nahi duen herri langile baten elea; bere manifestazioetan, bere teatroetan, bere bertsolari saioetan, bere kantaldietan, bere toberetan, bere ikastoletan, bere alokretan, bere uzinetan, bere portuetan, bere elizetan, bere artista-lantegietan, bere karriketetan... daraman bere burukaren neurriko elea. Dudarik gabe, hau ere da, nerretzat, lehengo eta betiko poesia (HH, 16 or.).

Literatur gai bihurtuko zituen Euskal Herria, laborariak, langileak, presunerrak, iraultzaileak... Sentimendu indibidualetatik haratago, herri oso baten, kolektibo edo gizatalde baten ahotsa nahi du izan eta haiei zuzentzen zaie etengabe. Idazten duen oro herritarrei, jende xeheari, langile eta laborariei zuzendurik dago, sekula ez *jende handi* eta *jakitunentzat*.

Hortaz, bere literatura herritarrei eta langileei zuzenduta bazegoen, goi mailako adierazpen sakon, landu, irudi eta sinbolismo konplexuz osaturiko mintzaira poetikoa baino, hizkuntza bizia eta hurbila izan behar zuen, jenderik arruntenarengana gardentasun osoz iristeko modukoa. Hura zuen kezka nagusietako bat. Horregatik, zioen, poesia ez da beti ele hautatua, ez polita, hezia, saindua edo apaindua:

Ez da beti ele hautatua eta pollita: bere gatz biperrekin dabila erne-ernea. Ez da beti arrunt hezia eta, beraz, maltsoa: bere xixta zorrotzak ateratzen ere ditu bipil-bipila. Ez da ele saindua. Ez da ele apaindua. Sofrikarioan nekez sortzen dena baizik. Eta hinki-hanka dabila gutartean bere pilda hitsekin, bere esku zikinekin, bere izerdiaren urrin bortitzarekin (HH, 16 or.).

*Nafarroari poema irekia*-n ere ezagunak egin diren hitzok idatzi zituen (NPI, 54 or.):

Hitz hauk ez dut nahi  
 Akademikoak izan ditezen  
 Dena itxuli mitzuli  
 Hitz hauk ez dut nahi  
 Jende handiek errekupera ditzazten...  
 Hitz hauk nahi ditut  
 Irakur eta konpreni erretxak  
 Nere Herri langilearen

Tripatik eta odoletik  
Ateraiak direlaketz.

Erdozaintziren obran, poesiazko nahiz prosazko testuetan, mezuak hartzen duen garrantziak, literaturaren herritartasunak, eta irakurlearekiko hurbiltze nahiak, joera estetiko batera bultzaten du idazlea, alegia, literatura zuzen eta adierazkorra egitera. Baliabide poetikoak, beraz, argitasun eta adierazkortasun horren zerbitzuan daude; bertso libreak, orriaren espazioan barreiatzen direnak, paralelotasun eta errepikapen lexiko nahiz sintaktiko etengabeak, hitzen pilaketak, hizkuntza argia... Horietako asko ahozkotasunean oinarritutako olerkiak dira, argiak, adierazkorrak, eta itxuraz, askotan, espontaneoak.

Prosazko lan argitaratu bakarretan ere poesiarako joera nabarmena da. *Gauaren atzekaldean* batik bat eleberri lirikoak da, tematikak, irudiek eta baliabide teknikoek poesia hurbiltzen baitute, kontaketa narratibora baino gehiago. Olerki luze bat bailitzan, eleberriak azaltzen digun istorio laburra aitzakia moduan darabil poetak, Paris handiaren alde ezkutu, ilun eta dramatikoaz mintzateko, egunez ikustetik ez dagoen gizakien bizitza dramatikoaz azaltzeko: hermina, bakardadea, bazterketa, txirotasuna...

## Erdozaintziren imajinarioa

Gure ikerketan arreta berezia eskaini nahi izan diogu Manex Erdozaintziren obraren *imajinarioaren* eta izaera sinbolikoaren azterketari. Izan ere, gazte garaiko olerkietatik hasita azken urteetako idatziak arte, hainbat gai, oroitzapen, amets eta irudi errepikatzen dira Manexen obran; guztiak elkarri loturik, elkar osaturik, poetaren barne mundua deskribatzen digute, poetaren inkontzientea.

Erdozaintziren lan ezagunenak irakurtzen dituen edonor berehala ohartzen da zuhaitzak, amak, sorterriak edota euskal lurak garrantzi handia izan dutela poetarengan eta pisuzko elementuak direla haren obran. Irudi horiek eta beste hainbat ez dira inolaz ere berriak, tradizioetik heldu zaizkigu eta hainbat kantu eta bertsoen iturri izan

dira, euskal literaturan ez ezik, literatura unibertsean ere bai; horiei loturik beste irudi berriago batzuk ere aurkitzen ditugu, gizarte hiritar eta moderno batetik datozenak. Horiek guztiak beren zentzu osoan ulertzeko eta nolabait antolatzeko Gaston Bachelard-en eta haren dizipulu izan den Gilbert Durand-en lanetara jo dugu, besteak beste. *Imajinarioaren* kritikak lagundu digu poetaren irudimena- ren mundura hurbiltzen, eta haren unibertso poetikoa deitu dugunaren sinboloek, arketipoek, irudiek, eta horien multzoek osatzen duten *sarea* edo *konstelazioa* osatzen. Irudiak ez dira poetak era arbitrario batez aukeratzen dituen zeinuak; aitzitik, barne arazoiei erantzuten dieten sinboloak dira, zentzu bakarra baino gehiago ñabardura eta dimentsio anitzeko izaera dutenak. Irudi eta arketipo unibertsean azterketari euskal antropologia eta mitologia- ren ikuspegia erantsi nahi izan diogu, Barandiaranen eta Andrés Ortiz-Osés-en lanak aintzat hartuz, bai eta Jung-en *inkontziente kolektiboari* buruzko teoriak ere; izan ere, gure poeta *ameslariak* amets edo irudi zaharrak jaso baititu, eta bere egoera eta bizipen pertsonaletara egokitu eta moldatu.

Horiek horrela, Erdozaintziren obran hiru dimentsio bereizten ditugu, hiru eszenatoki edo espazio, iruditegi zehatz batzuen inguruan eratzen direnak: poesia naturala, poesia humanista, eta poesia sozial-militantea.

## Poesia naturala

Erdozaintziren literaturaren lehen iturria espazio natural bat izan da, nekazal girotik eta naturatik harturiko irudi multzo batean oinarritzen dena: etxea, supazterra, haritza, lurra, laboraria, ama... Haur garaiko irudiak, oroitzapenak eta sentipenak idatzi askoren iturri izan ditu, eta iraganaldi urrun hartara itzultzen da sarritan, betirako galdu eta berreskuratuko ez duen mundu hura mitifikatuz eta idealizatuz. Manexen hainbat idatzik *paradisu galdu baten nostalgia* iradokitzen digute; paradisu bat zein- nean poetak tarteka bizi duen errealtatearen ondoezatik, bortizkeriatik eta saminetik ihes eginez babesa aurkitzen

duen. Iragan hura, beraz, babesaren, atsedena, intimitatearen eta sakontasunaren irudiek osatzen dute.

### *Etxea*

Irudi horietako bat, eta nagusietakoa, esan dezakegu, etxea da, poetaren sortetxea. *Euskal etxeak* pisu sinboliko handia du gure kulturen eta horren isla dugu aztergai ditugun olerkietan. Nostalgia transmititzen diguten irudiak dira, poetak gaztetatik etxea utzi eta urrutira joan behar izan baitu, etxea eta etxeak atzean utziz, «etxetik urrun hiri handietarat».

Erdozaintziren etxea *etxalde ttipi* eta *leku xumea* izanagatik, babesleku gotorra eta indartsua da (HH, 44 or.):

Gotorra da gotorra nere etxea bere zimenduetan  
Berrehun urtez badu zenbait zafraldi senditurik  
Bere gorputz zabalean, galerna kexuetan:  
Nere etxeak, gogor, gaur ere ihardokiren du!

Ttipitasunak intimitatearen balioak areagotzen ditu, eta etxea bilakatuko da, etxetik urrun delarik, babesaren eta goxotasunaren irudi; izan ere etxeak, ama baten moduan, kanpoko *erasietatik* eta hotzetatik babesten duen protekzio indar bat baitu. Etxea, bizileku hutsa baino gehiago, tenplu bat da bere txikitasunean eta apaltasunean, edo beste era batera esanda, *zentroparadisiako* eta sakratu bat (Eliade 1980), non ere poeta zoriontsua izan den eta zeinera behin eta berriro itzuli nahiko duen.

Tenplu-etxe horretan falta ezin den elementu garrantzitsu bat dago, *sua* alegia. Etxea beti da bero, «bero da bero nere etxe-barneko eremuetan» (HH, 44 or.), hain zuzen ere sukaldeko *sua* beti pizturik dagoelako. Supazterra edo *supazter xokoa* oso sinbolo errepikatua da Erdozaintziren olerkietan. Sukaldea etxeke tokirik beroena da eta bertan dago beti ama «akitua nigarretan/ sukalde barnean» (HH, 24 or.), edo «supazter xokoan/ su handi baten aintzinean/ Berotzen ari» (HH, 28 or.); ama da, izan ere, etxeke *sua* pizteaz eta gordetzeaz arduratzen dena. Kalean hotz de

nean etxeko suaren beroaren inguruan biltzen dira senide guztiak, istorioak kontatzen edo kantuan:

Nere haur denboran: sukaldea, etxondoa, alorrak, oiha-  
nak, mendiak, kaleak..., denak ziren ikastola. (...) Negu-  
ko hotzak biltzen gintuen denak supazterrari hurbil eta  
Eguberritan bizitzeak bazuen halako ikatz gorri itxura  
bat! (HH, 129 or.).

Familia guzia, xitak bere amaren hegaldian bezala  
Biltzen da supazter xokoan piztua den su beroaren  
[inguruan («Larrazkena» 1958).

Suaren beroak kanpoko hotzetatik babesten ditu. Et-  
xeko sua lasaia eta barea da, atsedena sinbolo, atse-  
derako gonbidapena. Suaren argiak, bestalde, gaueko  
belztasunetik babesten ditu etxekoak. Etxe argituak gau  
beltzean segurtasun sentipena sortzen du. Etxeko argi ba-  
karra suak ematen duena da eta haren inguruan babestu-  
rik daude: «zein goxo supazter xokoan!, zein argi su-lama-  
ren irria!» (HH, 44 or.).

Ilhunpe egiten du etxeko sukaldean  
Salbu bethi hor dago, chamindeiko su-garra  
Aratsean phizturik dagon argi bakharra  
Egoitzako biziaren itchura munduan!  
(«Amaren amentsa», 1953).

Suak berotzen du eta lasaitzen du, eta horren kont-  
zientzia biziagotzen da batez ere neguko gau batez ari ba-  
gara, gau hotz, ilun eta haizetsu batez. Zenbat eta handia-  
goa izan etxearen barrualde eta kanpoaldearen arteko ez-  
berdintasuna (beroa eta hotza, argia eta iluna, isila eta za-  
lapartatsua) hainbat eta handiagoa da etxearen intimita-  
tea poetarentzat.

Baina su guztiak ez dira berdinak Erdozaintziren iru-  
dimenean; suak badira nonahi baina ez dira ezer sortetxe-  
ko *su handiarekin* alderatuz gero, edo are gehiago, euskal  
etxeetako eta euskal herrietako suekin alderatuz gero.  
«Ilargiaren ume» deitu dugun olerki argitaragabeen irakur-  
dezakegu ideia hori. Parisen bizi den Migel gazteak (*Gaua -  
ren atzekaldean* eleberrian agertzen zaiguna) sortetxeko  
suaren falta du, ez du sekula su handi haren argia eta be-

roa bezalakorik aurkitu: «Zonbat denbora du sua ez dutala ikusi/ Zonbat denbora ez naizela suko aldean ibili?/ Suak ba dituk nun nahi/ Bainan su handi hura euskal etxeetan/ euskal herrietan?». Euskal etxeetako suak badu, beraz, besteek ez duten magikotasun bat, bai eta lotura zuzena eta intimoa ere haren ondoan berotzen direnekin.

Gure poetaren irudimenean, eta oro har euskal irudimenean tradizioz, etxeko sua etxearen sinboloa izan da, etxearen zentro nagusia, etxea berotu eta jakiak prestatu ez ezik etxea babestu eta garbitzen duena leku sakratu baten moduan (Barandiaran 1990, 58-59 or.; Duvert 1980, 19-20 or.). Hortaz, *benetako su* hura urrunean ahazturik, eleberriko gaztea haurtzaroko paradisua ere ahaztuz doa, suarekin batera oroitzapenak itzaltzen zaizkio eta, ondorioz, *ilargiaren ume* bilakatzen da.

### *Ama*

Etxearen sinbologia ez da bere osotasunean ulertzen harekin loturik eta ezin bereizturik dagoen beste irudi bat kontuan hartu gabe, hau da, amaren irudia. Bachelordek dioenez, etxe ongi itxi eta babestuaren intimitateak intimitate handiagoei dei egiten die, bereziki lehenik amaren altoaren, eta ondoren amaren sabelaren intimitateari; atsedeen leku oro amatiarra da (Bachelard 1997).

Erdozaintziren obraren irudi femeninoen artean amarena nabarmenki nagusitzen da. Amaren irudiak eta oro korrean amatasunak haren obran duen pisua agerian uzten dute gai horri dedikaturiko olerkiek eta aipamen ugariak. *Hinki-hanka* lehen olerki liburu argitaratuari amari buruzko olerki batek ematen dio hasiera: «Emazteki bat ene bizian...». Lehenagotik ere idatziak zituen «Neure amari» I (1949), «Neure amari» II (1950) eta /Igande gau hartan.../<sup>3</sup> (1957) olerki argitaragabeak, eta azken urteetan amaren oroitzapenak berreskuratuz zituen «Gure gorputzaren kondaira» idatziarekin (BP, 28 or.). Badira, bestetik, oro har amaren irudiari eta amatasunari idatzitako olerkiak: «Amaren sabelean» (BP, 38 or.), «Amaren amentsa» (1953), eta «Echografia» esate baterako.

Arketipo orok bezala, amarenak forma ugari hartzen ditu, eta Erdozaintziaren obran hainbat sinbolo eta irudi ditugu arketipo handi eta unibertsal horri dagozkionak: ama berezkoa eta edozein emakume; zentzu goren eta irudimenezko batean, Jainkoaren ama, Ama Birjina; zentzu zabal batean eliza, hiria, herria, lurra, itsasoa; materia, azpimundua eta ilargia; zentzu zehatzago batean, sorleku bezala, haitzuloa, zuhaitza, iturria; eta zentzurik zehatzenean, amaren sabela eta hurgune oro (Jung 1988, 74-75 or.).

Erdozaintziaren obrak bide ematen digu amaren arketipo handiak dituen ezaugarri berezkoen gainbegirada bat emateko. Esan dugun bezala, poetaren irudimenean nahiz ametsetan, etxeari guztiz atxikirik dago. Etxearekiko maitasuna amarekiko maitasunarekin nahasten da, etxondotik urruntzean amarengandik ere urruntzen da eta etxera itzultzean ama da ikusten duen lehena. Etxearen eremu zehatz bati dago loturik gainera: supazterrari. Amari dago-kio sua zaintzea eta etxea bero mantentzea («Emazteki bat ene bizian...», HH, 24 eta 28 or.):

Utzi nitikan ene etxeak:/ Ene Ama akitua nigarretan/  
Sukalde barnean (...) Zenbait urteren buruan/ Ene etxon-  
dorat/ Itzuli nintzen batez... (...)/ Ene Ama hatzeman ni-  
kan/ Supazter xokoan/ Su handi baten aintzinean/ Be-  
rotzen ari.

Ama edo etxeoandrea, tradizioz euskal etxe ohi-tura eta kultuen gidari, etxearen beroa eta iraupena ziur-tatzen duena da, bizi-emaille, elikatzaile eta maitale, jain-kosa baten modukoa semearen begietara: «Amak dio emaiten haurrari janaritzat/ Bere bizitik harturik duen oberena/ Eskaintzen dio amodiorik ederrena» («Amaren amentsa», 1953). Eta harekiko urruntasunak indartu bai-no ez du egiten amarekiko sentimendua.

Amaren irudi idealizatua eta aingerutua dakarkigu Erdozaintzik, harekiko urruntasunak eta ondoren haren desagertzeak eraginda, beharbada. Olerkiotan agertzen den amak ez-titasun, eskuzabaltasun, zintzotasun, eta maitasunezko irudi bati erantzuten dio. Emakume on eta ez-tia da, bihotz handikoa, «deneri zabaldua eta deneri ema-

na» (HH, 24 or.), isiltasunean semeen falta sufritzen duena..., eta langilea oso; aita bezala, ama «lanak eta penek higatua da» (HH, 20 or.): «Enezat higatu zare zure bizi guzian eta higatuz joan ene gatik zure azken indarrak bururaino baliatuz» (/Igande gau hartan/, 1957).

Kualitate ideal horiei deskribapen fisiko ideal eta *ain-gerutu* bat ere jarraitzen zaie: *begi urdinak, ezpain gorri beroak, belarri ttipiak...* Bestalde, euskal olerkigintzan ohikoa izan den joera batekin topo egiten dugu: emakumearen deskribapenean baliabide erretorikoak sortzeko naturaren elementuetara jotzen du. Eguzkia, ilargia, izarrak, zuhaitza, loreak... maitasun sentimendua adierazteko irudi eta sinbolo bihurtzen dira. Ortiz-Osések *realnaturalismo* deitzen duen horretan (Ortiz-Osés 1988, 48-49 or.) giza-maitasuna eta naturarekiko maitasuna nahasten dira etengabe, maitalearen edo maitatuaren ezaugarriak naturalizatuz: «Elhur churietako izar maitea» («Maiteari», 1950), «Begiak dituzu iduri izarño/ Bilo blonden pean dire argiago» («Gau batez», 1950), «Haizearen arina zenuen gorputzean/ Eguzkiaren dirdira begietan/ Iratzeen usaina larruan» («Zure begitartean haraindian»).

Ohiko erromantizismoa alde batera utzi gabe, eta mendi eta baserri giroko idealismo erromantikoarekin batera, ama indar absolutu eta bakar gisa agertzen zaigu, poetaren erro gisa, eta poetarekiko harreman «fisiologiko eta sustraizko» batean: «Eta ni haren haurra/ Haren sabeletik sortu umea/ Haren haragitik moldatu haragia/ Haren odoletik hazi odola...» (HH, 27 or.). Bi olerki idatzi dizkio amaren sabel barneko haurrari, «Echografia» eta «Amaren sabelean» (BP, 38 or.), bietan islatuz amaren eta haurraren arteko lotura harrigarria eta magikoa, amatasunaren misterioa eta handitasuna.

Lehen ametsezko etxearen babesaz mintzatu gara, oraingoan berriz amaren gorputzarenganako itzuleraren ametsaz. Bada, bietan babesaren behar bera dago, irudi isomorfoak dira, iraganaldiko atsedeenaren iturrietara eramaten gaituztenak. Etxe, haitzulo, sabel... denak dira amarenganako itzuleraren sinboloak.

### *Lurra eta natura*

Lurak bai materia edo substantzia gisa, bai egoitza edo sorleku gisa, iruditegi eta sinbologia aberats baten iturri izan da literaturan, eta halaber Manex Erdozaintziaren obran. Poetaren iragan galdu eta naturalaren poesia aztertzen ari garen honetan, intimitatearen eta itzulera-aren irudiak osatzera datorkigu Lurra. Izan ere euskal mitologian, hainbat sinesmen primitibotan bezala, gauza guztien sorleku edo iturri da; Lurra Ama Handia da, Ama Lurra, bizitza ororen sorrera eta amaiera, Eguzkiaren eta Ilargiaren ama, zioen Barandiaranek (Barandiaran 1990, 96 or.; Ortiz-Osés 1996, 45 or.). Emakumea bezala, lurra bizi emaile eta sortzaile da, «le ventre maternel dont sont issus les hommes», esaten digu Durandek (Durand 1979, 262 or.). Lurraren emetasunak, beraz, intimitatearen, sakoneraren eta atsedena-aren ametsetara eramaten gaitu berriro ere:

Maite zaitut neure lurra, lur mardo eta idorra, lur bustia eta zukua. Gorputza zabal-zabala etzaten naizenean, gutzizatzen zaitut zure erraietako indarki ixiletan: neure erroak barna eta sendo nahi nituzke zure erraietan landatuak. (...) Maite zaitut neure lurra, neure lur basa eta hezia, neure erroen lur emankorra, nigarrez eta irriz ari naizenean, eguzkiak itsutua; zure sabel mardo eta idorrean etzana, izarrei elestan eta kantuz ari naizenean... (GA, 59 or.)

*Gauaren atzekaldean* eleberriaren zati hori gizonaren eta Ama Lurraren lotura magiko eta etenezinaren adibide ederra dugu. Poeta lurraren seme sentitzen da, lurrean dituen erroak sustraiturik, eta bertara itzuli nahi luke, hari lotu eta landatu zuhaitz edo landare bat bailitz. Lurra du ama eta sorleku, eta emakume baten besoetan balitz bezala, lurraren *sabel mardo eta idorrean etzana* zoriontasun batean dago. Berriro agertzen zaigu emakumearen *sabela*, egoitza lehen eta perfektuenaren irudi.

Lurra eta emakumea, beraz, hertsiki loturik agertzen dira, biak zer sakratu eta misterioitsu baten moduan. Mitologikoki eta sinbolikoki naturaren arketipoak femeni-  
noak dira (Ortiz-Osés 1988, 47 or.), eta lotura horren

adierazpena dira poetak darabiltzan izenlagun edo epite-toak, emakumearen kasuan bezala, intimitate, epeltasun, biguntasun eta hezetasunarekin erlazionatuak: *lur mehe eta gizona, heze eta beroa, lur mardo eta idorra, bustia eta zuku-a, basa eta hezia, emankorra, sabel mardo eta idor* (GA, 58-59 or.), *lur busti epela* (BP, 27 or.).

Naturaren elementu guztiak oreka miresgarri batean, *izadiaren ekilibrio betean* irauten dute (BP, 64 or.). Xabier Le-tek idatzi zuen «Sinesten dut» olerkiak (Lete 1974, 63 or.) hitz egiten zigun zirkulu natural etengabe horretaz, gizaki, animalia eta materia oro ren bilakaera, sortze eta desagertzeaz. Erdozaintzik izen bereko olerkian («Sinesten dut», BP, 64 or.) antzeko hausnarketa egingo du, zeruak, lurrak, mendiek, ibaiek, izaki eta gizaki guztiak osatzen duten zirkuluan, bai eta horien sortzailea den Jainkoarengan, sinesten duela esanez. Gizakia-natura harreman honetan bada-go, beraz, beste dimentsio garrantzitsu bat alde batera ezin utz dezakeguna, kontzeptu teologikoa edo erlijiosoa, alegia, zeinaren arabera Jainkoa guztiaren sortzailea den, izaki, animalia eta landareek osatzen duten katearen sorburua.

Naturalismoaren eta erlijioaren bateratze horretan eragin handia izan dezakete San Frantziskoren idatziek. Hain zuzen, San Frantziskoren «Anaia Eguzkiaren Kantika» olerki luzeak (Manexen kaiera zahar batean euskarara itzulita aurkitu duguna) erlijioa-natura sentimendu hori bera agertzen du: eguzkia, ilargia, izarrak, haizea, ura, sua, ama-lurra, bizitza eta heriotza... guztiak Jainkoaren fruituak dira, Jainkoak sorturiko kate miresgarri eta etenezinaren atalak. Bestalde, Lurra eta Jainkoa, izadia eta kristautasuna, bi kontzeptuon bateratze horrek Pierre Teilhard de Chardin jesuita filosofo eta paleontologo frantsesaren mundu-ikuskeragoragaraz diezaguke. Erdozaintziren obran gizakia, lurra eta Jainkoa hiruko etenezinaren interpretazio bera antzeman dezakegula adierazi du J. Azurmendik:

Erdozaintzik kosmo unibertsoaren barnean eta harekin bat-bat egina senditzen zuela gizakia, haren poesiaren irakurle guztiak ohartu dira. Laborari familia batetan sortua, bizitza guztian munduan zehar ibili arren, hiriburu haundietan ere bere lurraren deia entzuten zuen barnean

(Azurmendi 1984).

Lurraren eta naturaren azalpen mitologikoaren atzean, hirugarren irakurketa bat egin daiteke Erdozaintziren idatzietan: Lurra Euskal Herriaren eta aberriaren sinbolo ere bada. Irudi alegorikoen bitartez poeta Euskal Herriaz mintzo da, *gure lurra* Euskal Herria da eta euskal langileak bere herriaren alde lan egin behar du. Euskal Herriko lur hori bizirik dago eta *kexu* da, *intzirika* eta *auhenka*, batetik bertako gazteek abandonatzen dutelako atzerrira joanez lanaren eta bizi berri baten bila, eta bestetik *ebatsia* izan delako, ez delako libre. Hortaz, langileak herria *landu*, *erein* eta *irauli* behar du berpiz dadin eta aske izan dadin. Manexek iraultza eta heritarren zutitzea aldarikatzen du, eta hori borrokalaria-laborariaren lanaren bidez lortuko da: «Xutitu gaituk/ Xutik egonen/ Gaituk/ EUSKADI/ Gure lurra iraultzeko» (HH, 63 or.).

Natura, bere osotasunean, herriaren alegoria bezala agertzen da. Autore erromantikoen modura, batzuetan haurtzaro galduaren irudi den natura baketsu eta orekatua ikusten dugu, poetaren oroitzapen zoriontsuekin bat egiten duena. Bestetan, berriz, poetaren haserrearekin, amorruekin edota sentimendu mingarriekin bat eginez, beste natura bat aurki dezakegu, hau da, natura bortitza, hitsa eta iluna. Poetaren haserre pizten duena, jakina, Euskal Herriaren egoera da. Natura, orduan, sufritzen duen, erasotua den eta askatasuna ukatua zaion herri baten irudia da: «hosto berdeak horaildu dira, mendietako zuhaitzak histu dira» (HH, 78 or.), «hodei beltzak jautsi dira, euri zitzer erauntsiak, hodei beltz harmatuak» (HH, 117 or.), «Gaur ilhun duk zeruan, lanho beltz batzuek gorde daukuia ilhargia» (/Gaur ilhun duk zeruan.../).

### *Zuhaitza*

Euskal kulturaren, beste hainbatetan bezala, hain eza-guna den zuhaitzaren sinboloak ere leku berezia hartzen du Erdozaintziren obran, haritzaren forman bereziki. *Hinki-hanka* bildumaren «Gure etxegibeleko haritza» olerkian mintzatu zen lehen aldiz etxe ondoan zuen haritz zahar

eta ahaztezinaz, bai eta gogoratu ere etxekoek moztea erabaki zutelarik zer-nolako hutsunea utzi zion zuhaitz desagertuak.<sup>4</sup> Olerki horrek haritzaren irudiak Manexen haurtzaroan izan duen garrantzia erakusten digu, baina urte askoren buruan idatzi dituen beste bi lan irakurririk irudi horren benetako eraginkortasunaz eta iraunkortasunaz ohartzen gara: 1983ko «Haritza» olerki argitaragabeak gogora dakar berriro ere zuhaitz moztu eta txikituaren irudia, eta prosazko testu amaigabe batean haritzondo azpian igarotako une goxoak eta amak haren heriotzaren berri eman zioneko eguna gogoratzen ditu.

Iraganeko paisaia natural hartan, beraz, haritza du o roitzapenik hunkigarriena. Etxearen ondoan eta etxeari erabat loturik agertzen zaigun zuhaitzaren itzalean sortu eta hazi da, eta bertan izan zuen eremu propio bat. Zuhaitz galduaren nostalgiak hara itzultzeko eta han bizitakoa eta sentitutakoa berreskuratzeko nahia pizten dio: «Nahiko nuen berriz itzuli etxe gibeledko haritzaren itzalerat orai dutan adinean, nolako solasak atxikiko zauzkiatan jakiteko» (Prosazko testu argitaragabea).

Bertikaltasuna eta goratasuna dira etxeko haritzaren ezaugari nagusiak, eta horiek, halaber, indarra ematen diote zuhaitzaren irudiari, haren mezu sinbolikoa aegotuz: «Nola ahantziko diagu hire besoen segurantzia/ Hire neurrien oparotasuna/ Gora eta zabal» (HH, 29 or.). Zuhaitz sendoa, enbor zabal eta adar lodi eta luzekoa, indarra ren eta babesaren sinbolo bilakatzen da, etxearen eta etxekoen babeslea: «Ez eta ere zenbat ekaitz, haize bolada/ Harri erauntsi gaixto jasan eta garaitu hintuen/ Gure etxekoetan nihork ez zezaken kunda» (HH, 29 or.).

Zuhaitzaren bertikaltasuna, ordea, bat-batean hausten da, eta zuhaitzaren goratasunari kontrajarririk irudi berria agertzen da, zuhaitz erori arina, sinbolismo ziklikoaren adierazgarri hau ere. Etxekoek haritz zaharra mozten dute, eta adiskide zaharraren heriotza isila eta ohoregarria kontatzen digu poetak: «Hirur peza/ Eta bospasei zerra/ azkenean/ puskatu haute/ Tzarra-tzarra/ Tronzenezarekin» («Haritza»). Hark baino lehenago zuhaitz moztuaren irudia agertu zuten Gandiagak *Hiru gizon bakarka* liburuan,

eta Lizardik «Zuhaitz etzana» olerkian, eta urrunago joanez, A. Machadoren «A un olmo viejo» olerkiarekin ere badu parekotasunik. Zuhaitzok badute, gainera, ezaugarri komun bat, alegia, ez direla alferrik sakrifikatuak izan. Etxegibeleko haritzaren egurra, Lizardiren zuhaitz etzanarena eta Machadoren zumar lehorrarena bezala, taulak egiteko baliatuko zuten; «taula polliten neurrira plegatu zen» etxeko zoladurak berritzeko (HH, 30 or.). Etxean jarraitzen du eta etxekoen zerbitzurako. Modu horretan zuhaitza ez da erabat hiltzen edo desagertzen, bizimodu berri batean berpizten da. Landare zikloi dagokien moduan, zuhaitzaren iraunkortasuna ziurtatzen da.

Zuhaitza Erdozaintziren paisaia natural guztietako elementu nagusia bada, haritza da guztien artean nobleena, oroitzapenen eta irudipenen sortzailerik handiena. Urrutitik datorkigu haritzaren balio sinbolikoa (Gemikako haritz santua dugu euskaltasunaren sinbolo ezagunetakoa), eta Manex, beste hainbat autore bezala, hartaz baliatuko da sarritan Euskal Herria irudikatzen. Zuhaitzek eskaintzen dizkiguten irudiak konparaketarako elementu egokiak dira herri baten suspertzea, askapena eta iraunkortasuna aldarrikatu nahi duen autore batentzat: enbor zuzen eta sendoa, enborrari darion izerdia, adar lodi eta zabalak, lurrari eusten dioten sustrai sakonak...

Gure Herri langile honen/ Ukaiak/ Haritz enborrak dira/  
Burruka luze baten historian/ Koropilatuak eta/ Enbor-  
tuak (NPI, 55 or.)

Hire enborratik adarrak ateratzen ziren bezala  
Eskual-Heritik eskual umeak nahi nizkek ateratzen ikusi!  
Lodi, azkar, hedadura luzean, mundu zabaleraino.  
Hire enborrari adarrak lotuak ziren bezala  
Eskual-Herriari eskual umeak nahi nizkek lotuak ikusi!  
(/Hire enborratik.../, 1964)

Zuhaitz handia, zuhaitz santua munduaren zentro gisa agertzen zaigu gure poetaren irudimenean, egonkortasunaren eta etorkizunaren sinbolo. Haur garaiko *etxegibeleko haritz* handi, sendo eta babesle haren ametsa berri du behin eta berriro edozein mendi nahiz hiritan aurkitu di-

tuen haritzetan; haietan berraurkitu du izaki handiaren eritmo motelaren lasaitasuna. Baina horri zuhaitz santuaren mito zaharraren ezagutza lotu zaio eta zuhaitza, haritza batik bat, Euskal Herriaren sinbolo ere bilakatu da, euskaldunen indarraren, borrokaeren eta askatasunaren sinbolo.

## Poesia humanista

Haurtzaroko mundu lasai, bero eta naturala alde batera utzirik, hiri handiaren eta gizarte modernoaren mundu berria islatzen duten idatziei erreparatuko diegu oraingoan. Nekazal irudi arketipiko euskaldunei hiri-irudiak jarraitu zaizkie Erdozaintziren obran, metropoliaren handitasunaz, azkartasunaz eta desgizontzeaz mintzo zaizkigunak. Bitoriano Gandiagak Madrilez idatzi zuen bezala (*Uda batez Madrilen*, 1977), Manexek Parisko jendeak eta kaleak dakartzkigu.

Hirian idatziriko olerki horiek ez dira bidaia baten kontaketa edo paisaia berri baten deskribapen hutsa, baikik eta mundu berri eta handi hark poetarengan piztu zuen erreakzio lirikoa. Ez du gehiago gelako bakardadean idazten, ez da iraganeko paisaia baketsuetan babesten; kalera irteten da, kale, plaza eta geltokitan ibiltzen da, metroan bidaiatzen du, ikusten duen oro idazten, jendeari begira, jende anonimoaren barne munduan sartu nahian.

Hasteko, etxetik joatea drama baten moduan bizi izan du idazleak. Gazte-gaztetatik atzean utzi zituen etxondoa, «aita-ama xaharrak nigarretan, Ama Lurra intzirika» eta Euskal Herria. Etxetik urrunduz amaren altzotik urruntzen zen. Betirako galtzen zuen amaren beroa eta babesa, etxean eta inguruetakoko mendi eta lurretan igarotako haurtzaroren mundu zorionsua, eta mundu arrotz bati aurre egiten zion. Haustura horrek tematika garrantzitsu baterako bide eman du Erdozaintziren olerkigintzan. Haur-denbora zorionsu haren hausturak sorturiko samin eta atsekabe handiaren adierazle dira hainbat idatzi. Herrimina gaitz eta zama pisu baten moduan agertzen da poetaren gazte garaiko olerkietan: «Herritik urrunduz geroz: xortetik garratzena!/ Bihotzean senditu dut trixturaren samina/ Bai ere gorputz

guzian, zamarik pizuenena:/ Gaitz horren inarrosaldi ikaragarriena» («Amentsaren lana», 1958).

Atzerian, etxetik eta amarengandik urrun idatziriko olerkietan sentipen negatiboak aurkitzen ditugu, aurreko atalean ikusitakoei guztiz kontrajarriak. Haustura tematikoarekin batera haustura psikologikoa ere antzematen da hautzaroarean mundu naturalaren eta hiriaren mundu berri eta modemoaren artean, iraganaren oñitzapenaren eta orainaren errealitatearen artean. Iraganari bizitza bero, lasai, babestu eta maitasunez beterikoa zegokion. Orainari, aldiz, bakardadea, beldurra, tristezia, mesfidantza. Hiria, atzerria, *anti-paradisua* da. Etxetik kanpo dena da *estranjer lekhu* eta *bide bortitz* («Neure amari», 1950). Poetak ez du gehiago etxearen segurtasunik eta babesik, beldur da, «txori beldurti bat da» (GA, 41 or.), eta galdurik dago. Elizanburu dakarkigu gogora honela dioenean: «Ene sor herritik kanpo iduri ardi bat/ artaldetik baztertua, hantchet laharren artean/ kokatua, ez jakin norat jo eskuin ezker eta/ plauf, etsiturik, lurrerat eroria» (/Zendako jauna?/, 1956-1958).

Hurrengo urteetan Paris handiak bide emango dio poetari tematika berri bat lantzeko, mundu berriaren eta gizarte berriaren inguruan hausnartzeko. Zarata, jendetza, abiadura, askatasun eza... Hiri handiaren gizarte bizitzan barneratzen da, haren funtzionamendua ulertzen saiatzen da, eta aurkitzen dituen alde ilunak ozenki salatzen. Hirian dena da zarata, arrabotsa; eta jendea, arraza, adin eta maila guztietako jendea nahasirik, batetik bestera doa korrrika eta presaka (*un monde d'agités*), kale, metro eta autobusetan tinkatuak elkarri erreparatu gabe.

Zoaz/ Noa/ Goaz/ Harat-Honat/ Hartuak/ Eramanak/  
Burtxoratuak/ Goaz/ Karrikan/ Metroan/ Otobusean/  
Metatuak/ Tinkatuak/ Estofatuak/ Goaz...

Kaleetako eta bereziki metroko zurrunbiloak eta jendearen joan-etorri eroak poeta zorabiatzen du, *burtxoratzen* du. Izan ere Parisko lur azalaz baino gehiago lurrazpiko hiriaz hitz egiten digute Erdozaintziren idatziek; hainbat metro geltoki eta korridoretan zehar garamatza: Montparnasse, Vavin, Denfert-Rochereau, Alesia, Concorde...

Inspirazio iturri aberatsa da azpi-mundu hori, hausnarke-tarako eta jendearen behaketarako bidea ematen diona. Parisko *lur-sabela* deitzen dio hiri-azpi horri, berriro ere lur emearen eta sabelaren irudia ekarriz. Baina Parisko *lur-sa-bel* horrek sentipen ilun eta ezkorrak baino ez ditu sortzen poetarengan, *bihotzaren ilunbeetan* sentiarazten du («Metroan»). Metroa *giza-bizitasun izpirik* iristen ez den *lurrazpi anonimo tristea* da (GA, 10 or.).

Hiria, metroa, arraza guztietako jende multzo anoni-moen biltokia da, batetik bestera mugimendu eroan dabilena, elkarrengan erreparatu gabe, elkarri metatuak eta aldi berean bakardaderik handiengan. Jendea, gainera, esklaboen modura ekonomi sistema itogarri bati kateaturik bizi da: «Ez dakite, ez dakigu besoak eta zangoak moztu-rik gabiltzala jostatzeke uzten dizkiguten oren laburretan, hatsa hartzeke doia, ilusio baten doia» (GA, 12 or.).

*Handi-mandiak* eta zanpatuak, aberatsak eta pobreak, agintariak eta jende xehea... bi munduen arteko borroka ekartzen digu Erdozaintziren obrak, batzuen boterea eta nagusitasuna, eta besteen mendekotasuna. Hiriak bi munduak biltzen ditu, bien arteko aldea areagotzen eta sakontzen, eta poetak errealitate krudel honetara hurbildu nahi gaitu, poesia «giza errealitateaz beti mintzo baita» (HH, 15 or.). Beraz, metropoliaren bi aurpegiak ikus ditzakegu. Batetik, auzo eta kale ederrak daude, auto, etxe eta jauregi eder eta aberatsen egontoki; eta bestetik hiri handiaren ateetan geratzen diren auzo xeheak, *miseriaren erresumak*, lantegiak eta errautsez beteriko kaleak... Batetik, arrotasunez eta dotoreziaz kaletik doazen *puxantak*, jende kargudun eta diruduna, sistemaren zaindariak, alegia; eta bestetik, eskaleak, behartsuak... Hiria lurreko marjinatuen topaleku da. Eskalea Erdozaintziren Parisko paisaietan sekula falta ez den personaia da. *Bideko errautsak* dira, jende *on* eta *garbiarentzat* oztopo eta zikinkeria baino ez direnak (HH, 50 or.).

Eta bi mundu horien artean poeta dago, batari eta besteari beha. Bera ez da eskalea, ez da kale bazterrean bizi, badu aterperik, janaririk, adiskiderik... eta halere «eskalaria bezain pobre eta beharretan nabila» (HH, 52 or.). Gandiagak Madrilan egin zuen bezala, gizatasun apur ba-

ten bila dabil gure poeta, eskale baten modura kalez kale. Erdozaintziren obrak gizarte modernoan galtzear diren giza-sentimenduen beharraz hitz egiten digu, maitasunaz, elkartasunaz, giza-loturez, komunikazioaz...

Bilaketa horrek kontenplaziora darama, hiriarena berarena baino, jendearen kontenplaziora. Ondoan duen eta ondotik igarotzen den pertsona anonimo orori begira egotea maite du eta haien ezaugarri fisiko, keinu edo mugimendurik txikiak jasotzen ditu une batez inguruko errealitatea ahaztuz. Deshumanizaziotik eta zatarkeriatik irten nahi balu bezala jendearengan jartzen du begirada eta zehaztasun handiko argazkiak eskaintzen dizkigu. Kallean, ostatueta, tren eta metroetako bagoietan, geltokietan, metroko korridoretan... nonahi dago poetaren arreta bereganatzen duenik.

Batzuetan behaketa azkarra da eta jende zerrenda bat ematen digu, leku horietan igarotzen, sartzen, ateratzen, esertzen edo zutitzen direnak..., irakurtzen, erretzen, hitz egiten, besarkatzen, edo besterik gabe begirada galduta doazenak... Beste batzuetan jendartean hautaturiko pertsonen deskribapen zehatza aurkitzen dugu: metroko bagoian edo korridoretan dagoen eskalea, metro nahiz trenean haren ondoan esertzen den emakumea edo gizona...

Jendearen behaketa ez da, ordea, ezaugarri fisiko hutsetara mugatzen. Begi, ile, azal kolore, gorpuzkera nahiz janzkerari buruzko xehetasunez gainera, behaketa sakona egiten du, azaleko ezaugarri horiek gordetzen duten eta iradoki dezaketen barne mundua ezagutzen ahalegintzen da. Pertsona orok «mundu sekretu bat darama berarekin» («Trein Honen Drangadan», 1983) eta mundu horretan, *eresuma* horretan barna bidaiatzea maite du poetak. Haien pozak, kezak edo atsekabeak ezagutu eta konpartitu nahi lituzke, «ahal banu ixtant bat zure soa ezagutu...» («Metroan»). Eta elkarri hurbildu, komunikatu eta maitasuna agertu nahi eta ezin horretatik sortzen da, hain zuzen ere, poetaren ezintasuna eta ezinegona.

## Poesia soziala

Erdozaintziren obraren hirugarren dimentsio hau, aurrekoari oso loturik dagoena, haren alderdirik ezagunena eta zabalduena da seguruenik.

Manex bere garaiari, bere herriari engaiaturik bizi izan den idazlea izan da, eta haren obra herriaren bizi nahiaren eta ezinaren arteko gatazkaren emaitza da. Eleberrian nahiz olerkietan gizartearekiko kezka eta konpromisoa aurkitzen ditugu, kritika zorrotza eta salaketa, bai mundu osoan gudarik eta zapalkuntzarik bizi duten lurraldeei dagokienean, bai hurbiletik bizi duen Euskal Herriko errealitate gatazkatsuari dagokionean.

Internazionalismoak eta antikolonialismoak nazio txikien zapalkuntza eta zatikatzea salatzen eraman dute, beti ere defendatuz haien burujabetasunaren, askatasunaren eta nortasunaren defentsaren aldeko borroka. Giscard d'Estaing-en Frantzia eta Francoren Espainia bezala, gogorra dakartza Vietnam, Palestina, Afrika, Hego Amerikako herrialde pobre eta zapalduak («Non dira Santiagorateko bideak...», HH, 98 or.; «Managuako bideak», 1979), eta gizarte mailaketaren, zapalkuntzaren edota gosetearen biktima izan den lurralde oro. Nazio urrunen zoriaz mintzo zaigu Erdozaintzi, baina beti ere bere herria gogoan, elkarren arteko gizarte edo historia parekotasunak agerian utziz, nazio haiei buruz idaztea gure herriaren egoeraz hausnartzeko aitzakia bailitz.

Gudak, iraultzak, gatazkak... munduan indarkeria eta heriotza da nagusi, eta poetari horrekiko kezka eta konpromisoa pisua eta mingarria gertatzen zaio. Erdozaintziren olerkigintzan etorkizunaren ikuspegi baikorra eta itxaropentsua nagusi bada ere, ezintasun sentimendua handia da, eta zenbait olerki geroari buruzko kezka existentzialen isla dira.

Gaur ilhun duk zeruan/ Lanho beltz batzuek gorde daukuen ilhargia/ Gaur ilhun duk munduan./ Gerla solasek ikaretan/ Ezarri gitie/ Herra solasek tinkatu daukuie/ bihotza.

Aneia,/ Gaur ilhun duk ene bihotzean/ Zeren,/ Mundu guzia/ Entzun baitut (1966).

Antikolonialismoaren eta antikapitalismoaren ideiei loturik, abertzaletasuna dugu Manexen obraren zutabe nagusia eta idatzi gehienen inspirazio iturria. Gazte garai-ko olerkiek Euskal Herriaren irudi erromantikoa agertzen bazuten, berehala protestak eta salaketak jarraitu zitzaizkien. Euskal Herria ez zen dagoeneko euskaldun langile eta zintzoaren paradisu mitikoa. Aitzitik, sufritzen duen, zanpatua den eta banandua izan den Euskal Herri zehatz batez ari zaigu Erdozaintzi. Zazpi probintzietako herria da, jakina, eta etengabe aldarrikatuko du herria banatzen duten mugen suntsiketa, alde batekoak eta bestekoak baten dituzten lokarriak, elkarren arteko anaitasuna, helburu, amets eta historia komunak... («Hil zorian ote gara?», HH, 70 or.; «Neurriak», HH, 82 or.; «Askatasunaren amets zohardia», HH, 120 or.;...). Herria biktima bat da, buruzagi, arrotz eta *puxanteen* biktima, lurraren espekulazioaren biktima. Lurra eta Herria identifikaturik agertzen dira, biak bat dira, zer sakratu bat, naturala eta biziduna. Herriak *erraiak* ditu, eta errealtate gordina bizi duen izaki bizidun bati legozkiokeen adjektiboak darabiltza idazleak: *herri zanpatua* da, *apurtua*, *ukatua*, *urkatua*, *gakotua*, *esteka-tua*, *esplotatua*, *umiliatua*, *hilzorian* eta *erdi-minetan* dago.

Baina etsipen eta ezintasun adierazpen ororen gaine-tik, mezu baikorra eta itxaropentsua zabaltzen du: «Ahantzi nahi ditut etsipen kantuak/ Herri zapaldu honen intziri-nigarra —dio errepiketana—. Esperantza kantatzen ez naiz asperturik!» (NPI, 66 or.). Izan ere, herria *zutitzen*, *iratzartzen*, *oldartzen* ari dela ikusten du, eta borroka horrek Euskal Herri berri bat, mundu berri bat eka-rriko duela ziur da («Populu bat...», HH, 63 or.; «Itxarope-na», BP, 26 or.; «Sinesten dut», NPI, 64 or.). *Mundu berri* baten itxaropenak iraultza aldarrikatzera darama Erdozaintzi; iraultza da herriaren irtenbide bakarra. Poesia *burruka baten elea* dela zioen eta berea hala da. Olerki ugari iraultzarako deiak dira, proklamak, *euskal semeak* zuti eta kalera irten daitezten, lanari lot dakizkion eta herria bere gain har dezaten. Ikus, besteak beste: «Mundu zabalera-ko!» (HH, 46 or.), «Hil zorian...» (HH, 70 or.), «Herri bat» (HH, 93 or.), «Gure kantuak» (BP, 24 or.; NPI, VIII)...

Poeta bera iraultzailea da; bera ere borroka berean sartua da, bere arma poesia bada ere. Biktima bat da; «Zangoak eta besoak/ Falta ditut/ Ebaki dizkidate», esaten digu («Poeta bat nere erraietan»), Arestiren *Harri eta Herri* gogoratu. Bat egiten du euskal gatazkaren ondorioak pairatzen dituzten biktimekin: herriaren alde borrokatzea hautatu dutenak, presondegietan direnak, ihesean eta klandestinitatean bizi direnak, borrokan bizia eman dutenak... eta oro har zuzenean edo zeharka gizartearen injustiziak sufritzen dituztenak; guztiak dira bere *izerdiaren haurrak* (HH, 117 or.).

Gizarte honetako beste biktima bat, Erdozaintzik bere idatzietan ahazten ez duena, langileria da. Gazte garai-ko olerkietan laborariez mintzo zen batik bat, poetak mi-  
resten dituen laborari noble eta trebeez, lurrarekin harremanean eta lurrari loturik bizi direnak. 1960-1970eko hamarkadetatik aurrera, ordea, *langilearen* kontzeptua zabaltzen du, eta dagoeneko langilea ez da soilik baserritarra eta laboraria baizik eta baita lantegietan diharduena ere: «Uzinetako, miagia suerte guzietako langileak.../ Bas-herrietan egonki eta gogorki lanari eman laborariak...» («Jauna mintzo», 1960). Langileria borrokaren irudi bihurtzen du, eta *mailu kolpe* bakoitza, herriaren indarraren sinbolo, askatasunerako pauso bat da («Behereko lantegietatik», HH, 115 or.). Poesia baliatuko du salatzeke langileen esplotazioa, lan baldintza gogor eta itogariak, *uzinen* itxiera, langabezia... (ik. HHE). Eta halaber, egoera horri kontrajarririk, Iparraldeak jasaten duen turismoaren zabalkundea eta frantses udatiar aberatsen ezaxola eta ezjakina: «udatiar pobreak ez dik irri egiten langilearen atorra zikinaz!» (HHE, 88 or.).

Manex Erdozaintziren idatziek *mundu berri* bat, Euskal Herri berri bat iragartzen digute. Baina ez nolana hiko. European, mundu osoan aintzat hartua izango den *euskal populua* ikusten du, bateratua, beldurrik eta ahalgerik gabea, bere historia eta hizkuntza berreskuratuko duena... Errealitate gatazkatsua gorabehera, poetaren pentsamendu kristauak eta aldi berean sozialistak, eta gizakiarenganako konfiantzak, herri perfektu, ideal eta utopiko

batekin amestera bultzatzen dute: injustiziarik gabea, gorroto eta borrokarik gabea, menperatzaile eta menpekorik gabea... Azken batean, poesia sozialari leporatu izan zaion munduaren nolabaiteko ikuskera manikeoa islatzen digute idatziok, mundua ongi eta gaizki hutsaren artean banatzen duen ikuspegi dualista. Batetik jende on eta zapalduak daude, euskaldun xume, langile eta fededunak, alegia, «gure» herria, «gure» hizkuntza eta «gure» kultura defendatzen dutenak, poeta bera «gu» honen barnean dagoe-larik. Bestetik, kanpotar zapaltzaile boteretsuak, *puxantak* eta aberatsak, «beren» kultura eta «beren» legea inposatu nahi dutenak.

Poetaren helburu nagusia bere mezu soziala ahalik eta argien eta zuzenen zabaltzea izanik, herri mugandik gertu dauden irudi eta alegorietara jotzen du (ikus, esate baterako, *Herri honen eraietan* —1982— olerki alegoriko luzea). Irudi eta sinbolo multzoez osaturiko alegoriak dira, kultur-kodigo batzuen arabera eraikiak, eta irakurleari ezagunak eta ulerterrazak zaizkionak. Gizarteak bizi duen gatazka adierazteko euskal literaturan hain erabiliak izan diren ‘kaiola’, ‘otso beltza’, eta horrelako sinbolo ezagunez gain («Kaiioletan»), naturaren elementuez osaturiko iruditegia aurkitzen dugu, mezu poetikoari izaera sinboliko eta unibertsala ematen diotenak: zuhaitza, euskal Lurra, *ur xiripa*, euskal mendiak, harria... Arestian azaltzen genuen bezala, paisaia ilun eta bortitza irudikatzen digu Manexek, erasotua eta zanpatua den herri baten alegoria moduan; zeru ilunak, hodeiak, euria, ekaitza, mendi lehorrak... Baina halaber, itxaropenerako bidea ikusten duelarik, herria *iratzartzen* eta *zutitzen* hasia dela ikusten duelarik, paisaia bera ere argitzen eta koloreztatzen da. Bi olerki ditugu aldaketa honen adibide: «Herria izerditan» (HH, 78 or.) eta «Euskadiko karrikak» (HH, 112 or.). Poetaren irudimenean, askatasuna eta nortasuna galdu duen herriak bizia ere galdu du, izadi zimeldua da, eguzkirik eta kolorerik gabea, idorra.... Euskal Herri berri baten ametsak, ordea, iraganaldiko koloreak, natura heze eta emankorra berreskuratzen ditu.

Iragana berdea bazen, oraina, berriz, beltza da, eta etorkizuna berriro ere berdea izango dela amesten du.

Lurra eta Herria, sortetxea eta hiria, Jainkoa eta aberria, laborariak eta *uzinetako* langileak..., elementu naturalak eta sozialak loturik agertzen zaizkigu Erdozaintziren idatzietan, elkarren osagarri eta ezin bereiziak. Naturaren eta herriaren arteko alegoriak, nekazal giroari, hiriaren munduari edota aldarrikapen sozialei dagokien sinbologia, ez dira berriak euskal literaturan. Halako edukiak eta forma poetikoak landu dituzten autoreak izan dira haren aurretik (Aresti, Gandiaga, Lekuona, Lete, Artze...); azken batean gure *imaginario kolektibotik* datorren iruditegia da, nork bere moduan eta helburu jakin batez landu, moldatu edo eraldatu duena. Horien guztien bidetik, Manex Erdozaintzi-Etxarten poesiak sentimenduen, ideia politiko-sozialen eta fede kristauaren sintesia dakar. Errealitate sozialaren protesta eta salaketa ozenarekin batera, bide ematen dio intimismoari, bizitzaren eta gizakiaren izateari buruzko gogoetari (gizakia-natura, gizakia-hiria, gizakia-Jainkoa), errealitatearen zentzuari eta kristautasunari buruzko hausnarketari. Hizkuntza erraz eta zuzenaren atzetik, ke-xuaren eta gizarte salaketaren atzetik, badago sakontze bat, bai hizkuntza poetikoaren erabilerari dagokionean, bai bizitzaren eta gizakiaren izateari buruzko gogoetari dagokionean.

1950-1960ko hamarkaden inguruan plazaratzen hasi ziren idazleen artean kokatu behar dugu Manex Erdozaintzi-Etxart; gizarte eta politika mailako aldakuntza garai batean garatu zirenak, eta kultur aldakuntza baten hastapena eragin zutenak. Aurreko garai eta literatur ereduekiko haustura jarrera zuen; tradizio erromantikotik eta erlijio kutsuko olerkigintzatik guztiz urrunduta gabe, literaturaren berrikuntza zekarren, poesia gai eta molde ezberdinak landuz eta literatura joera eta eredu berriak hautatuz. Iparraldeko kultura mundua ttipiegia suertatzen zitzaion, eta euskara batuaren lehenengo urratsak ematearekin batera, hegoaldeko kultur eta literatur giroarekin zubi bat eraiki nahi izan zuen, edo bederen, zegoen zubi ahula indartu. Haren literatur obrak eta artikuluek 1950-1980

bitarteko Iparraldearen eta oro har Euskal Herriaren lekukotasun paregabea eskaintzen digute, berorietan islaturik aurkitzen baititugu aldakuntza eta garapen garai baten gatazkak, ametsak eta itxaropenak. ♪

1. Artikuluan erabiliko ditugun obren laburdurak: *Hinki-hanka* (HH), *Bizitza pilpirak* (BP), *Nafarroari poema irekia* (NPI), *Herri honen erraietan* (HHE), eta *Gauaren atzekaldean* (GA).
2. Erdozaintzik 1974an Joan Mari Torrealdairen inkestan «Zuk zeinentzako idazten duzu?» galderari emandako erantzuna.
3. Olerkiak berez izenbururik ez duenean, hasierako hitzak jartzen dira barra artean.
4. Etxegibleko haritzari idatziriko olerki horrek Pedro Mari Otaño Barriola idazle zizurkildarraren «Amerikako Panpetan» olerkia dakarkigu gogora, 1900. urtean Argentinan bizi zela idatzia.

### Bibliografia

- Azurmendi, J., «Joxe Azurmendi-rekin solasean Manexen poesiaz», *Herriz Herri*, 1984-06-07 (Erdozaintziri buruzko ale berezia).
- Bachelard, G., *La terre et les rêveries du repos*, Ed. José Corti, Paris, 1997.
- Barandiaran, J. M., *Mitología vasca*, Txertoa, 1990.
- Durand, G., *Les structures anthropologiques de l'imaginaire*, Dunod, Paris, 1979.
- Duvert, M., «La maison basque, un espace sacré», in *Etxea ou la maison basque*, Lauburu, 1980.
- Eliade, M., *Images et symboles. Essais sur le symbolisme magique-religieux*, Ed. Gallimard, Paris, 1980.
- Jung, C. G., *Arquetipos e inconsciente colectivo*, Paidós, Bartzelona, 1988.
- Lete, X., *Bigarren poema liburua*, Ed. Mensajero, Bilbo, 1974.
- Mounier, E., *Le personnalisme, Que sais je?*, P.U.F., Paris, 1949 (gazt. *Qué es el personalismo*, Ed. Criterio, Buenos Aires, 1956).
- Ortiz-Osés, A., *El matriarcalismo vasco*, Universidad de Deusto, Bilbo, 1988.
- Ortiz-Osés, A., *La Diosa Madre. Interpretación desde la mitología vasca*, Ed. Trotta, Madril, 1996.